

BALIOZKO PROPOSAMENA

Guk sortutako proiektua online aplikazio bat da zeinak ikusmen urritasuna edo erabateko itsutasuna duten pertsonen erosketak erraztea du helburu. Izan ere, erosketak egitea eta dieta orekatu bat eramatea eguneroko bizitzako jardueren barne aurkitzen diren ekintzak dira. Aplikazio honen bidez, jarduera horiek burutzeko zailtasunak dituzten pertsonari erraztasunak eman nahi zaizkie, gizarteratzeko oztopoak murrizteko eta bizi-kalitatea hobetzeko asmoz. Aplikazioari esker, erabiltzaileak orientatzeko ahalmena izango du; hau da, supermerkatuan erosketak egiterako orduan zuzenean interesatzen zaion produktura joko du ibilbide ahalik eta azkarrena egiten aplikazioak horretara bideratzen diolako. Horrekin lotuta, erabiltzaileak erosketak azkarrago egitea lortuko du denbora aurrezten duelarik.



Gure proiektua, ideia berritzailea da, ikusmen urritasuna edo erabateko itsutasuna duten pertsonentzat zuzenduta dagoena. Guk dakigunarekin aurretik ez du inork sortu eta hori da guri berezi egiten gaituena. Gizartean dauden behar horiek asetzeko gure ideia planteatu dugu eta bezeroa gu ordaintzeko prest egongo da berak duen premia edo behar hori asetzeko.

Gure ideiarri erreferentzia eginez, **gure balioa** aniztasunarekiko arreta eta ikuspegi soziala bermatzea izango da; hots, aniztasunari garrantzi gehiago ematea eta gizarte integrazioa bermatzea ikuspegi integral batetik. **Ideia**ren **balore kuantitatiboa**, balio edo prezio sinbolikoa izango du; beraz, sarbiderako erraztasuna zuintatuko du; izan ere, diru-sarrerak supermerkatu-kate

ezberdinekin sinatutako aliantzaren bidez lortuko ditugu. **Gure balio kualitatiboa**, aldiz, ikusmen urritasuna duten pertsonen ulermena ahalbidetuko du ahozko eredu bati jarraituz, beraz, app barruan aurkitu daitezkeen funtzio guztiak ahoz transmitituko zaizkio erabiltzaileari: argibideak, gomendioak, produktuen inguruko informazioa...

Edozein ideia sortzen denean, **lehiakideak** sortzen dira eta bien arteko konpetentzia agertzen da. Gure aplikazioan **lehiakideengandik bereiztuko** da honako hauen bitartez:

- Gure zerbitzuaren izaera soziala eta inklusiboa
- Helburu operatiboak eta praktikoak bizitza errealan erabilgarritasuna dutenak
- Desgaitasun bat duten pertsonen autonomia eta independentzia sustatzea.

Gure **proiektua** esan bezala **berritzailea** da, horrek esan nahi du aurrez existitzen ez ziren beharrak asetzen dituela. **Aplikazioaren berritasunari** dagokionez, inguruko merkatuan ez da topatzen horrelako supermerkatuekin aliantzak sortu dituen eta produktuen inguruko datu base zabala daukan aplikaziorik, eta horretaz gain, ikusmen desgaitasunari arreta egiten diona. Arrazoi horiengatik, produktu berritzailea eta **sormenezko ideia** dela esan daiteke, horrela, gizarte integrazioa eta inklusiboari garrantzia ematen dio.

Prestazioen xede nagusia, produktu edo zerbitzu baten erabilera hobetzea da. **Gure produktuaren prestazioak** hauek dira; ahotsezko gida osotua eskaintzen du, ahotsezko komanduak jaso eta prozesatzen ditu, erabiltzailearen ikusmen mugak aplikazioaren erabilera oztopatu ez dezan. Hau da, botoiak sakatu beharrean (horrek irakurtzea eskatzen baitu), erabiltzaileak ahoz adieraziko dio aplikazioari eman nahi dituen pausoak, eta honek, bere eskariak prozesatuko ditu, ahozko erantzunak ere ematen eta produktuen datu-base zabala eta produktuetan ematen diren aldaketak (prezioak, berrikuntzak...) automatikoki detektatzea.

Eskuragarritasuna bezero jakin batzuen esku dauden produktuak eta zerbitzuak eskuratzeko aukera ematen datza. **Gure aplikazioa**; iOS, Android eta

Microsoft sistema operatiboetan erabiltzeko **eskuragarri** egongo da, edozein mugikorretatik erabili daiteke.



Erabilerraztasuna produktua edo zerbitzua erabiltzeko erraza izatea ziurtatu behar du. **Gure app-aren erabilerari** dagokionez, ez du inolako konplikaziorik. Behin aplikazioa mugikorrean instalatua izanda, bertan sartu eta soilik produktua seinalatuz, produktu horri buruzko beharrezko informazio guztia eskeiniko du, ahotsezko zein idatzizko komanduen bidez.